

## **AIAKO HARRIKO URUBIEK ERREPIKATU & BERRIRO ERE PARKEA BIZIRIK-EKO HABIA-KUTXAN KUMATU DUTE**

Iragarpen guztien aurka lortu dute. Aurtengo otsailaren 20tik 21era bitartean, Beran (Nafarroa) piztu zen suteak 2000 hektarea kiskali zituen (horietatik 400 Aiako Harria Parke Naturalekoak, Gipuzkoa). Suhiltzaileek urubiarentzako habia-kutxa dagoen tokitik metro gutxitara sua itzaltzea lortu zuten. Ordurako, kutxa garbituta eta atonduta zegoen, prest.

Apirilean ezustekoa iritsi zen, ikuskapena egin orduko errunda zituzten bi arrautzak eklosionatzear zeuden. Dantzan ari zirela zirudien, dar-dar egiten zuten eta barrutik urubikumeek gogoz eta luzez elkarri txio eta hitz egiten zioten: *Pri-pri-pri*. Bete-betea entzuten zen; erantsitako bideo-dokumentuak halaxe erakusten du.

Jaiotzak iritsi ziren, eta haien atzetik ilargiaren argipeko gosariak: kutxaren oinarrian barreiatuta zozo-lumen hondarrak, zizareak diruditen sagu-isatsak... eta gainerako barietate gastronomikoak.

Bi kumeen garapena haize alde ibili da eta maiatzean habia kutxatik irten dira euren ondasunik preziatuenaz gozatzeko: bizitza.

### **Baina zer gertatu da Donostiako Ulia mendian dagoen urubiarentzako habia-kutxan?**

2020an kutxa dagoen zuhaitza leku ezkutu batean bazegoen ere eta inongo biderik harea eramaten ez bazuen, 2021aren hasieran eta mendiko bizikleten joan-etorri hutsengatik, enborretik zentimetro gutxira dagoen bide bat ireki zen. Mendiko txirringa elektrikoen erabiltzaileek egunez egungo joan-etorri hau areagotu zuten, bizikleta tradizionalen bidez ezinezkoa litzaizkiekeen leku eta sarbidetara iritsiz eta degradatuz.

Joan-etorri horrek gaueko harrapari horiek bizitzeko eta habia egiteko behar duten lasaitasuna hautsi egin du eta, horregatik, iaz bi kume aurrera atera zituzten kutxari uko egin

diote; izan ere, zerura begira agertzen diren bi urubi kumeen argazkiak mugak hautsi zituen, jende askoren miresmena eta poza piztu zuena.

Txirringen etengabeko joan-etorriek higadura handia eragin dute. Lurra desagertuz doa eta zirkuitu berriaren kota lehen zegoena baino 40 cm beherago dago. Lehenik eta behin, sustrai lodi eta horizontalak agerian azaldu ziren eta gero, kaltetua eta azalik gabe. Gure aldetik, urubiak bizi diren ingurunean bertan berriro kumatu ahal izateko, galdutako lasaitasun baldintzak betetzen dituen beste kokaleku ezkutu bat aurkitzea baino ez zaigu geratzen.

Klikatu YouTubeko <https://youtu.be/p3c5f4fVco> helbidean edota *Urubiaren kumeak habia-kutxan (Parkea Bizirik 2021 Aiako Harria)* 53 segundoko bideoaz gozatzeko eta ikasteko.

Jarrai dezagun Naturaren alde lanean eta ondare natural eta unibertsala ezagutarazten.

Egian, 2021eko ekainaren 17an

**AIAKO HARRIA PARKE NATURALA (GIPUZKOA)**





Urubiaren errunaldia (2021eko apirila)



Urubiaren kumeak



Urubiaren kumeak 2021eko maiatzean

## DONOSTIAKO ULIA MENDIA (GIPUZKOA)



Donostiako Ulia mendian urubiarentzako dagoen habia-kutxa. Ikus ezazu mendiko bizikletek hilabete gutxiren buruan sortarazi duten bidea eta, horren ondorioz, urubiek, iaz ez bezala, ez dute berriro erabili.



Ikusi, harrapari gautarrentzako habia-kutxa dagoen eremuan, urtebeteko epean nola higatu eta desagertu den lurra mendiko txirringen etengabeko joan-etorriengatik